

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3220

541/2024 EBAZPENA, ekainaren 25ekoa, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Ander Arrieta Polo jaunari esleitzen zaizkion Irun Erdialdeko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak.

Bidasoko ESiko zuzendari-gerentearen apirilaren 3ko 318/2024 Ebazpenaren bidez, onartu egin zen Bidasoko ESiko Irun Erdialdeko Lehen Mailako Arretako Unitateburua izendatzeko deialdi publikoa.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Ander Arrieta Polo jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hari esleitzea Bidasoko ESiko Irun Erdialdeko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hirugarren arau komunarekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ander Arrieta Polo jaunari esleitzea Bidasoko ESiko Irun Erdialdeko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak.

Bigarrena.– Ander Arrieta Polo jaunak bi eginkizun izango ditu: kudeaketa eta asistentzia ematea; eta Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko Gerentziaren mende egongo da zuzenean eta hierarkian. Bai Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak egin bitartean bai horiek amaitu ostean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion plazan, eta hari lotutako oinarritzko eginkizunak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Izendapen honek ezingo du, inolaz ere, Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak edo ordainsariak finkatzerik ekarriko, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da eginkizun horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Interesdunak, eginkizun horietan diharduen bitartean, osagarri berezi bat jasoko du erantzukizunagatik.

Bosgarrena.– Izendapen honek EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Interesdunari eta Bidasoko ESleri ebazpen honen berri ematea.

Zazpigarrena.–Ebazpen honen aurka gorajotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hondarribia, 2024ko ekainaren 25a.

Bidasoko ESiko zuzendari-gerentea,
MARIA LUISA MERINO HERNÁNDEZ.